Asteko, egiten zaion lehenengo kritika, oso kaotikoa dela da. Izan era, konektibismoaren oinarritzko ideien artean ez dago ordenarik, era kaotiko batean nahasten dira bata bestearekin. Hala eta guztiz ere, teoria honen oinarrian ezagutzaren kaosa dagoela kontuan hartzen badugu, kritika honek ez du funts handiegirik.

Egiten zaion bigarren kritika, esfortzu guztia ikasleek nola ikasten duten azaltzeko bideratu beharrean, zer ikasten den eta zergatik ikasten den azaltzean erdiratzen da. Ikuspegi hau psikologikoa baino pedagogikoagoa da eta beraz, konektibismoa ezin dela teoria psikologiko bat bezala ulertu dio.

Hirugarren kritikak, teknologiei ematen dien garrantziarekin zerikusia dauka. Izan ere, konektibismoak IKT-ekin kontaktu etengabe batean dagoen ikaskuntza prozesua azaltzen du eta ez du kontuan hartzen guztiak ez dituztela teknologia horiek

eskuratzeko eta horiekin lan egiteko baliabidek. Beraz, hirugarren kritika honek teoriak errekurtsio gutxiko inguruneak ahazten dituela dio.

Laugarren kritika batek berriz, hezkuntza ez formalean eta iraupen gutxiko ezagutzetan gehiegi erdiratzen dela aldarrikatzen du. Teoria honek kontzeptu teorikoagoetan aplikazio eskasa duela esaten dute eta baita ikasleek oinarrizko ezagutza batzuek eskuratu behar dituztela teoria honek proposatzen dituen kontzeptuak aplikatzen ahal izateko.

Azkeneko kritika ahotsak, baloreen formazioa ahazten duela esaten dute berriz. Formazio hau, umeak era eraginkor batean gizarteratzeko ezinbestekoa da eta hori gutxi balitz, konektibismoak defendatzen dituen proiektu kooperatiboetan parte hartu ahal izateko ikasleek eduki behar dituzten giza gaitasunak erabat ahazten ditu.

3. OINARRIZKO GAITASUNAK

3.1. Gaitasunen kontzeptua Espainiako legedian

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (OCDE bere gaztelerazko siglen arabera) 34 herrialdek osatzen dute eta bere funtzioen artean ekonomia, hezkuntza eta ingurumen arloetan ikerketak egitea da hauen hobekuntza bilatzeko. Testuinguru honetan, ELGAK pertsonen bizitzarako eta gizartearen funtzionamendu egokirako ezinbestekoak kontsideratzen diren gaitasunak hautatzeko eta definitzeko proiektu bat garatu zuen. Proiektu honen izena DeSeCo (Definición y Selección de Competencias) da eta bertan oinarrizko konpetentzia bat zer den honela definitzen da:

Una competencia es más que conocimientos y destrezas. Involucra la habilidad de enfrentar demandas complejas, apoyándose en y movilizando recursos psicosociales (incluyendo destrezas y actitudes) en un contexto en particular. (...) Cada competencia clave debera contribuir a resultados valiosos para sociedades e individuos; ayudar a los individuos a enfrentar importantes demandas en una amplia variedad de contextos; y ser relevante tanto para los especialistas como para todos los individuos.
(DeSeCo 2005, p. 3)

Espanian, oinarrizko gaitasunetan oinarritutako curriculum bat eratzea ahalbidetu zuen lehenengo hezkuntza legea, 2006 urteko LOE (Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación) izan zen.

Datorren hamarkadan jakintzan oinarrituta egongo den eta etengabeko hazkunde ekonomikoa, enpleguaren hobekuntza kuantitatiboa eta kualitatiboa eta gizarte-kohesio handiagoa lortzeko ahalmena izango duen ekonomia lehiakorrago eta dinamikoago batera iristeko asmoa hezkuntza-helburu komun batzuen formulazioan islatu da. Zientziaren eta teknologiaren bilakaera bizkorra eta bilakaera horrek gizarte-garapenean duen eragina dela-eta, inoiz baino beharrezkoagoa da hezkuntzaren bidez jakintzaren gizarte berrian bizitzeko eta sortzen diren erronkei aurre egiteko behar bezala prestatzea.

Hori dela-eta, lehenik eta behin, Europar Batasunak eta UNESCOk hezkuntza eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea hartu dute helburu. Horretarako, beharrezkoa da irakasleen gaitasuna hobetzea, guztiek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko aukera bermatzea, ikasketa zientifikoetan, teknikoetan eta artistikoetan matrikulazioa handitzea, eta eskuragarri dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea eta giza baliabideetan egin beharreko inbertsioa handitzea. Bigarren, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemarako sarbidea zabaltzeko aukera erraztea planteatu da eta, horretarako, ikasteko ingurune irekia sortu, ikaskuntza erakargarriagoa egin eta herritartasun aktiboa, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatu behar dira. Hirugarren, sistema horiek kanpoko mundura zabaltzeko helburua jarri da, eta lan-bizitzarekiko, ikerketarekiko eta, oro har, gizartearekiko lotura sendotzea, espiritu ekintzailea garatzea, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza hobetzea, mugikortasuna eta elkartrukeak areagotzea eta Europako lankidetzaren indartzea eskatzen du horrek. (LOE, 2006, hitzaurrea)

Europar Batasunak eta UNESCOk proposatutako hezkuntza helburu horiek jada ezin ziren ordura arte Espainian indarrean zegoen hezkuntza legearekin (LEY ORGÁNICA 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo) lortu. Izan ere, Europar Batasunak Oinarrizko Gaitasunetan oinarritutako hezkuntza bat proposatzen zuen XXI. mendeko gizartearen beharrak asetzeko bide gisa. Honenbestez, Espainian zegoen LOGSE legea zaharkituta geratu zen lege hau ezagutzen eskurapenean oinarrituta zegoelako eta ez gaitasunen eskurapenean.

Bizitza osoko ikaskuntza sustatzeak, ororen gainetik, gazteei hezkuntza osatua eskaintzea eskatzen du. Hezkuntza horrek egungo gizartean beharrezkoak diren oinarrizko jakintzak eta gaitasunak hartuko ditu kontuan, herritartasun demokratikoaren praktikaren, elkarbizitzaren eta gizarte-kohesioaren euskarri diren balioak garatzeko aukera eman behar du, eta gazteengan ikasten jarraitzeko gogoia eta haien kabuz ikasteko gaitasuna piztu behar du. Horrez gain, ikasketak eta prestakuntza lan-jarduerarekin edo beste jarduera batzuekin konbinatzeko aukera eskaini behar zaie gazteei eta helduei. (LOE, 2006, hitzaurrea)

Guzti hau kontuan hartuta, oinarrizko gaitasunek pertsonen garapen integrala ahalik eta maila altuenean lortzera eta bizitzan zehar ikaskuntzak sorrarazteko aukera izatera zuzenduta egon behar duela du.

Etengabe aldaketan dagoen mundu batean bizi garela esan dugu lehenago ere eta aldaketa hauek hezkuntzan sumatzen dira baita. 2013ko abenduaren 10ean, Espainiako Gorte orokorrek LOMCE (LEY ORGÁNICA 8/2013, de 9 de diciembre, para la Mejora de la Calidad Educativa) legea, Wert legea bezala ezagutzen dena, onartu zuten. Lege honen aplikapena datorren ikasturtean hasiko da (2014-2015 ikasturtea) eta bertan, honela definitzen dira oinarrizko gaitasunak: “Capacidades para aplicar de forma integrada los contenidos propios de cada enseñanza y etapa educativa, con el fin de lograr la realización adecuada de actividades y la resolución eficaz de problemas complejos.” (LOMCE, 2013 sec. I p. 19349)

Definizio honetan ikus dezakegun bezala, lege aldaketa honekin oinarrizko kompetentzien kontzepzioa aldatu egiten da. Izan ere, hezkuntzaren helburua izatetik (LOEn pertsonen garapen integrala lortzeko oinarrizko gaitasunak garatu behar direla Ana Bengochea Irigoyen

defendatzen da), helburu bat lortzeko tresna izatera (LOMCEan ezagutzak aplikatzen jakiteko garatu behar dira oinarrizko gaitasunak) pasa dira. Aldaketa honek, hezkuntzaren ikuspegi aldaketa bat suposatzen du, ikuspegi horretan atzera egitea suposatzen du. Izan ere, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari garrantzia eman beharrean, oinarrizko gaitasunak tresna gisa ikusteak garrantzia ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren emaitzei ematea esan nahi du. Modu honetan, LOMCE legeak hezkuntzaren ikuspegian tradizionalago bat defendatzen du eta horrek hezkuntza ulertzeko dugun moduan atzera egitea esan nahi du.

3.2. Nafarroako Lehen Hezkuntzako Curriculumeko zortzi gaitasunak

3.2.1. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna

Gaitasun hau hizkuntza ahoz eta idatziz komunikatzeko, errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko, ezagupenak osatu eta komunikatzeko eta pentsamendua, emozioak eta portaera antolatu eta auto-erregulatzeko tresna gisara erabiltzeari dagokio.

Gaitasun honetako ezagupenek, trebetasunek eta jarrerak bidea ematen digute pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak azaldu, hizketan aritu, zentzu kritikoa eta etikoa osatu, ideiak sortu, ezagupenak egituratu, solasari, ekintzei eta lanei koherentzia eta kohesioa eman, erabakiak hartu eta entzuten, irakurtzen eta ahoz nahiz idatziz adierazteko atsegina hartzeko,⁵ eta horrek guztiak autoestimazioa eta konfiantza garatzen laguntzen du.

Komunikatu eta hizketan aritzeko, beharrezkoa da besteekin eta inguruarekin loturak eta harreman konstruktiboak ezartzeko eta ezagutzen diren heinean onartzen diren bestelako kulturetara hurbiltzeko gaitasunak garatzea. Horregatik, hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna elkarrekin bizi eta gatazkak konpontzeko trebetasunaren barruan dago.

Hizkuntzak, errealitatea ulertu eta irudikatzeko tresna den aldetik, berdintasunerako baliabidea behar du izan, alegia, emakumeen eta gizonen artean berdintasuneko harremanak ezarri eta estereotipo eta esapide sexistak baztertzeko. Hizkuntza bidezko komunikazioak eskola komunitatean gatazkak modu lasaian konpontzeko tresna izan behar du.

Entzun, azaldu eta solas egiteko beharrezkoa da hitzeko interakzioaren mota desbedinez ohartzea, hala nola komunikazio egoera desberdinetan trukutzen diren ahozko mezuak azaldu eta ulertzeko gero eta gaitasun handiagoa izan eta komunikazioa testuingurura egokitzeko gaitasuna izatea. Halaber, beharrezkoa da hizkuntzako eta hizkuntzaz kanpoko kodeak eta trebetasunak eta egoera bakoitzean komunikatzeko arauak aktiboki eta eraginkortasunez erabiltzea, komunikazio egoera bakoitzari egokitutako ahozko testuak produzitzeko.

Irakurri eta idazteak bidea ematen digute informazioa bilatu, bildu eta prozesatzeko eta asmo komunikatiboa edo kreatiboa duten testu mota desberdinak sortu eta erabiltzeko. Irakurtzeak idatzizko hizkuntza erabili ahal izateko kodea interpretatu eta ulertzea ahalbidetzen digu, eta, gainera, atseginarenean iturria da, bestelako inguruneak, hizkuntzak eta kulturak ezagutzeko bidea eta fantasiaren eta jakinduriaren sorburua, eta horrek guztiak komunikatzeko gaitasuna mantendu eta hobetzeko laguntza ematen du.

Hizkuntza bidezko komunikazioko ekintzei (elkarrizketari, irakurketari, idazketari eta abarri) helburu batzuk aplikatzeko gaitasuna loturik dago gaitasun horren funtsezko ezaugarri batzuekin, adibidez errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko trebetasunekin eta ezagupenak eta ekintzak antolatu, autoerregulatu eta koherentzia ematekoekin.

Ulertzea eta komunikatzen jakitea jakintza praktikoak dira, hizkuntzaren funtzionamenduaren eta hura erabiltzeko arauen gogoetazko ezagutzan oinarritu behar direnak eta hizkuntza behaketarako eta analisirako tresnatzat hartzeko trebetasuna barne hartzen dutena. Testuinguru sozial eta kultural bakoitzeko komunikazio egoerara egokitutako solas mota desberdinak sortu eta interpretatzeko, beharrezkoa da hizkuntza sistemaren funtzionamendu arauak eta ahozko jardun egokia izateko estrategiak ezagutu eta erabiltzea.

Gaitasun horrek barne hartzen du hizkuntzaren konbentzio sozialez, balio eta alderdi kulturelez eta testuinguruaren eta komunikazio asmoaren araberako moldakortasunaz ohartzea. Berarekin dakar beste pertsonen tokian jartzeko gaitasun enpatikoa, irakurri, entzun, analizatu eta bereak ez bezalako iritziak sentsibilitatez eta izpiritu kritikoaz

onartzekoa, mamiari eta formari dagokienez ideiak eta emozioak egoki adiearaztekoa eta kritikak egin eta izpiritu positiboaz onartzekoa.

Atzerriko hizkuntzen kasuan, eta jakite eta formalizazio maila desberdinekin, gaitasun horrek berarekin dakar horietako baten bat –bereziki idatziz– komunikatzeko erabiltzeko trebetasuna, eta horrekin batera, harreman sozialak aberastu eta norberarena ez bezalako testuinguruetan aritzea. Orobat, informatu, komunikatu eta ikasteko iturriak zabaldu eta dibertsifikatu egiten dira.

Labur esateko, derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran hizkuntza gaitasuna garatzearen ondorioz, ahozko eta idatzizko hizkuntza testuinguru desberdinetan menperatzen dira eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat funtzionalki erabiltzen da.

3.2.2. Matematikarako gaitasuna

Gaitasun hau ondoko hauei dagokie: zenbakiak erabili eta erlazionatzeari, haien arteko oinarrizko eragiketak eta arrazoibide nahiz adierazpen matematikoaren motak erabiltzeari, bai informazio mota desberdinak sortu eta interpretatzeko, bai errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazialei buruzko ezagutza handitu eta eguneroko bizitzako eta lan munduko arazoak konpontzeko.

Matematikako gaitasunaren osagaia da informazioak, datuak eta argudioak argitasunez eta zehazki interpretatu eta adieraztea, eta horrek bidea ematen du bizitza osoan zehar ikasten segitzeko, hala eskola munduan nola hortik kanpo, eta gizartean parte-hartze eraginkorra izateko.

Halaber, gaitasun honek barne hartzen du oinarrizko elementu matematikoak (zenbaki motak, neurriak, sinboloak, elementu geometrikoak eta abar) ezagutu eta eguneroko bizitzako benetako edo itxurazko egoeretan erabiltzea, hala nola arazoak konpondu nahiz informazioa lortzeko balio duten arrazoibide prozesuak abian jartzeko. Prozesu horiei esker, gero eta egoera eta testuinguru zabalagoetara aplikatzen ahal dugu informazio hori, argudio kateak ulertzen ahal ditugu funtsezko ideiak identifikatuz, eta argudioen eta informazioen logika eta balioa juzgatzen ahal dugu. Hortaz, matematikako gaitasunak berarekin dakar pentsamenduaren prozesu batzuei (indukzioa, dedukzioa, eta abar) jarraitu eta kalkulurako algoritmo edo logika elementu

batzuk aplikatzeko trebetasuna, eta horrek arrazoibideen egokitasuna identifikatu eta arrazoibide egokien emaitzen ziurtasun maila baloratzea ahalbidetzen digu.

Matematikako gaitasunak barne hartzen ditu informazioarekiko eta matematika elementuak edo euskarriak dituzten egoerekiko (arazoak, gauza ezezagunak eta abar), hala nola behar denean erabiltzeko, jarrera positiboa eta segurtasun eta konfiantza gero eta handiagoak; segurtasun eta konfiantza horien oinarriak dira ziurtasunaren errespetua eta gustua eta haren bilaketa arrazoibidearen bitartez.

Gaitasun honek errealitatea eta zentzua hartzen du elementu eta arrazoibide matematikoak haien beharra duten eguneroko egoerei aurre egiteko erabiltzen direnean. Beraz, haren barruan daude egoera horien identifikazioa, arazoak konpontzeko estrategien aplikazioa eta daukagun informaziotik abiatu errealitatea irudikatu eta interpretatzeko teknika egokien hautapena. Azken batean, matematika jarduera testuinguru askotarikoetan erabiltzeko ahalmen benetakoa. Horregatik, derrigorrezko hezkuntzan haren garapena lortuko da baldin eta matematika ezagupenak bestelako jakintza arloetatik eta eguneroko bizitzatik heldu diren egoera desberdinetan naturalki aplikatzen badira.

Matematikako gaitasunaren garapenak, derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran, berarekin dakar matematikazko arrazoibideak esparru pertsonalean eta sozialean naturalki erabiltzea, informazioa interpretatu eta sortzeko, eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko eta erabakiak

hartzeko. Azken batean, matematikako arrazoibideak erabili, matematikako argudioak ulertu eta matematika-hizkuntzaren bidez komunikatzea ahalbidetzen diguten trebetasunak eta jarrerak aplikatzea da kontua, eta hori euskarri egokiak erabiliz eta matematika-ezagupenak bestelako ezagupenekin lotuz, konplexutasun maila desberdinekin bizitzak planteatzen dizkigun egoerei erantzuteko.

3.2.3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna

Mundu fisikoarekin, bai haren alderdi naturalekin, bai giza jardunak sortutako horiekin, elkar eragiteko trebetasuna da, gertaerak ulertu, ondorioak aurreikusi eta nork bere bizitzaren, beste pertsonen eta gainerako izaki bizidunen bizi-baldintzak hobetu eta zaintzeko bidea ematen diguna. Labur esanda, bizitzaren eta jakintzaren arlo

desberdinetan (osasuna, lana, kontsumoa, zientzia, prozesu teknologikoak eta abar) autonomiaz eta ekimen pertsonalez jardun eta mundua interpretatzeko trebetasunak hartzen ditu barne; zeregin horietarako beharrezkoa da tartean sartutako jakintza-arlo desberdinetatik fenomenoak analizatzea ahalbidetzen diguten oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak aplikatzea.

Beraz, gaitasun honen osagaia da bizitza eta giza-jarduna garatzen direneko espazio fisikoa, bai eskala handian, bai ingurune hurbilean, egoki hauteman eta inguruko espazioarekiko interakzioak izateko trebetasuna: bertan higitu eta objektuak eta haien kokapena barne hartzen dituzten arazoak konpondu.

Orobat, espazio fisikoarekiko interakzioan jarduteko gaitasunak berarekin dakar espazio horretan pertsonak egotearen eraginaz ohartzea, haien kokapena, jarduerak, eragiten dituzten aldaketak eta ondoriozko paisaiak aztertu eta ikastea zer garrantzitsua den gizaki guztiak garapenaren onuradun izatea, garapen horrek aniztasun eta baliabide naturalak zaintzea eta elkartasun globala eta belaunaldien artekoa mantentzea. Halaber, barne hartzen du errealitatea hauteman eta informazioko nahiz publizitateko mezuak aztertzekeko izpiritu kritiko bat, hala nola eguneroko bizitzan kontsumo arduratsuko ohiturak izatea.

Gaitasun honi esker, eta giza gorputza, natura eta gizonek eta emakumeek harekin duten interakzioa ezagutzetik abiatuz, bizimodu desberdinen ondorioei buruzko arazoibideak egin eta inguru natural eta sozial osasuntsu batean bizitza fisiko eta mental osasuntsua izateko jarrera sustatzen ahal dugu. Orobat, osasunaren bi aldeak – banakakoa eta soziala– aintzat hartu eta nor bere buruarekiko eta besteekiko erantzukizun eta errespetuzko jarrerak izatea ahalbidetzen digu.

Gaitasun honek bidea ematen digu galdera nahiz arazoak identifikatu eta frogetan oinarritutako ondorioak lortzeko, mundu fisikoa eta gizakiaren jardunak ingurumenean eta pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean eragiten dituen aldaketak ulertu eta haiei buruzko erabakiak hartu ahal izateko. Barne hartzen du ezagutza eta prozedura horiek erabiltzea, pertsonen, erakundeen nahiz ingurumenaren eskakizunei edo beharrei erantzuteko.

Aurretik ulertutako nozio, kontzeptu zientifiko eta tekniko eta teoria zientifiko batzuen aplikazioa ere hartzen du barne. Horretarako, beharrezkoa da analisi sistematikoaren eta ikerketa zientifikoaren prozesuak eta jarrerak praktikan jartzea: arazo garrantzitsuak identifikatu eta planteatzea; zuzeneko nahiz zeharkako behaketak egitea, haien gidari den esparru teorikoaz edo interpretaziozkoaz jakitun izanik; galderak egitea; informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bilatu, aurkitu, aztertu eta irudikatzea; har litezkeen konponbideak edo hipotesiak planteatu eta egiaztatzea; konplexutasun maila desberdineko iragarpenak eta inferentziak egitea; eta galdera zientifikoei erantzun eta testuinguru desberdinetan (akademikoan, pertsonalean eta sozialean) ondorioak lortu, interpretatu, ebaluatu eta komunikatzeko eskura dagoen ezagutza teorikoak eta enpirikoak identifikatzea. Halaber, barne hartzen du ikertzeko jardueraren ezaugarriak, ahalbideak eta mugak ezagutzea, historian zehar jakitatea osatzeko tresna izan den aldetik.

Gainera, gaitasun honek eguneroko bizitzako eta lan munduko beharrak asetzeko konponbide teknikoak planifikatu eta erabiltzeko trebetasunak ematen dizkigu.

Laburbilduz, gaitasun honek berarekin dakar pentsaera zientifiko-teknikoa erabiltzea, jasotzen den informazioa interpretatu eta aurrerapen teknologikoen eta zientifikoen pertsonak, gizartea eta natura nabarmen eragiten dituzten mundu honetan autonomiaz eta ekimen pertsonalez erabakiak hartzeko. Era berean, barne hartzen du ezagutza zientifikoa bestelako jakintza-arloetatik bereizi eta baloratzeko gaitasuna, eta baita zientziari eta garapen teknologikoari lotutako balio eta irizpide etikoak erabiltzeko ere.

Orain arte azaldutako trebetasunen eta gaitasunen ildo beretik, oinarrizko gaitasun honetan sartzen dira baliabide naturalen erabilera arduratsua, ingurumenaren zainketa, zentzuzko kontsumo arduratsua eta osasun pertsonala eta kolektiboaren babesa, pertsonen bizi kalitatearen funtsezko elementuak baitira.

3.2.4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala

Gaitasun hau informazioa bilatu, lortu, prozesatu, komunikatu eta jakintza bihurtzeko trebetasunean datza. Trebetasun batzuk hartzen ditu barne, informazioa bilatzetik hasi eta hura tratatu ondoren euskarri desberdinen bitartez transmititzearekin bukatuta,

barne hartuz informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, informatu, ikasi eta komunikatzeko funtsezko elementua baita.

Informazioa bilatu, hautatu, erregistratu eta tratatu edo aztertzeari loturik dago. Informazioa lortzeko teknika eta estrategia batzuk erabiltzen ditu, aukeratzen den iturria eta erabiltzen den euskarria zein den (ahozkoa, inprimatua, ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia). Oinarrizko hizkuntza berariazko batzuk (testu bidezkoa, zenbakizkoa, ikono bidezkoa, ikusizkoa, grafikoa eta soinu bidezkoa) eta haiek deskodetu eta transferitzeko jarraibideak menperatzea eskatzen du, hala nola informazio mota desberdinen, haien iturrien, ahalbideen, kokapenaren eta hura adierazteko maizenik erabiltzen diren hizkuntzen eta euskarrien ezagupena egoera eta testuinguru desberdinetan aplikatzea.

Informazioa izateak ez du automatikoki jakintza sortzen. Informazioa jakintza bihurtzeko beharrezkoa da hura antolatu, erlazionatu, aztertu eta sintetizatzeke, hala nola konplexutasun maila desberdineko inferentziak eta dedukzioak egiteko trebetasunak izatea, laburbilduz, hura ulertu eta lehendik ditugun ezagupen-eskemen barruan sartzeko trebetasuna. Haren barruan dago, halaber, lortutako informazioaren eta ezagupenen komunikazioa, horretarako berariazko hizkuntza eta teknika desberdinak, hala nola informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten ahalbideak barne hartzen dituzten adierazpen baliabideak erabiliz.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak lan intelektualeko tresna gisa erabiltzen trebea izateko beharrezkoa da beren funtzio bikoitzean erabiltzea, alegia, informazioa eta jakitatea transmititzeko eta sortzeko. Funtzio sortzailea erabiltzen da, adibidez, matematika, fisika, gizarte, ekonomia edo arte arloetako prozesuen ereduertarako tresna gisa erabiltzen direnean. Orobat, gaitasun honek bidea ematen du informazio ugaria eta konplexua egoki prozesatu eta kudeatzeko, benetako arazoak konpondu eta erabakiak hartzeko, hala nola ikasteko komunitate formal eta ez-formaletan parte hartzeko komunikazio inguruneak zabalduz, lankidetzta taldeetan haritu eta produkzio arduratsuak eta kreatiboak sortzeko.

Gaitasun digitalak barne hartzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzean etekinik handiena lortzea, eta horretarako beharrezkoa da sistema teknologikoen ezaugarriak, funtzionamendua eta arlo horretako aldaketek pertsonen IKT-ak hezkuntzan: familien, ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala garatzen

eta lanaren munduan duten eragina ezagutzea. Halaber, haren osagaia da softwarean eta hardwarean sortu ohi diren arazoak identifikatu eta konpontzeko estrategia berrien erabilera. Gainera, teknologia horiek ematen duten informazioa aprobetxatu eta modu kritikoaz aztertze bidea ematen du, bai norberaren lan autonomoaren bidez, bai lankidetzan arituz, sinkronikoki eta diakronikoki, eta gero eta zabaloagoak diren ingurune fisiko eta sozialekin harremanak ezartzeko. Gaitasun honek informazioa antolatu eta prozesatzeko balio du, hala nola informazio hori ikasketen, lanaren eta aisialdiaren arloetan aurretik finkatutako xedeak lortzera bideratzeko.

Horiek horrela, gaitasun digitala benetako arazoei konponbide egokia emateko baliabide teknologikoak normaltasunez erabiltzean datza. Era berean, bidea ematen du informazio iturri berriak eta berrikuntza teknologikoak agertu ahala, haiek ebaluatu eta aukeratzeko, berariazko eginkizunak nahiz helburuak lortzeko egokiak diren heinean.

Labur esateko, informazioaren tratamenduak eta gaitasun digitalak beraiekin dakarte informazioa eta haren iturriak eta baliabide teknologikoak hautatu, prozesatu eta erabiltzean pertsona autonomoa, eraginkorra, arduratsua, kritikoa eta gogoetatsua izatea, bai eta eskura dagoen informazioa baloratzeko jarrera kritikoa eta gogoetazkoa izatea eta behar denean informazioa egiaztatzea ere, hala nola informazioa eta haren iturriak euskarri desberdinetan erabiltzeko gizartean adostutako jokabide arauak errespetatzea.

3.2.5. Gaitasun soziala eta herritartasuna

Gaitasun honi esker, bizi garen gizartearen errealitatea ulertzen dugu, eta gai gara lankidetzan aritu, elkarrekin bizi, gizarte anitz batean herritartasun demokratikoaren arabera jokatu eta gizartea hobetzeko konpromisoa hartzeko. Parte hartu, erabakiak hartu, egoera jakin batzuetan nola jokatu hautatu eta hartutako aukeren eta erabakien erantzukizuna hartzea ahalbidetzen diguten ezagutzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu.

Oro har, barne hartzen du gizartearen bilakaerari eta antolaketari eta sistema demokratikoaren ezaugarriei eta balioei buruzko ezagutzen erabilera, gizartean ongi moldatzeko, hala nola hautatu eta erabakiak hartzeko zentzu morala erabili eta herritarren eskubideak eta betebeharrak modu aktiboan eta arduratsuan betetzea.

Gaitasun honek munduaren errealitate historikoa eta soziala, haren bilakaera, lorpenak eta arazoak ulertzea errazten digu. Errealitatea modu kritikoan ulertzeko, beharrezkoa da esperientzia eta ezagupenak izan eta errealitate hori aztertzeko ikuspuntu desberdinak daudela jakitea. Berarekin dakar analisi multikausalerak eta sistemikora jotzea, gertaera eta arazo historikoei buruzko iritzia eman eta haiei buruzko gogoeta kritikoak eta globalak egiteko, hala nola benetako egoeren gaineko arrazoibide kritikoak eta logikoak egin eta besteekin hizketatzeko, haiekin batera errealitatearen ulermena hobetzearren.

Ondoko hauek ere hartzen ditu barne: gaur egungo gizartearen ezaugarriak eta haien aniztasuna, gero eta handiagoa dena, eta arazoak ulertzea; kultura desberdinek gizateriaren bilakaerari eta aurrerapenari egindako ekarpenez ohartzea; eta bizi garen gizarteko kide izatearen sentimendu komuna izatea. Labur esateko, tokian tokiko identitatearekin bateragarria den herritartasun global bat izatea.

Halaber, gaitasun honen funtsezko osagaiak dira ondoko trebetasun sozial hauek: balioen eta interesen arteko gatazkak elkarbizitzaren parte direla ohartarazi eta haiek modu konstruktiboan konpontzeko bidea ematen digutenak, hala nola erabakiak modu autonomoan hartzea ahalbidetzen digutenak, horretarako, alde batetik, gizarteari buruzko ezagupenak erabiliz, eta, bestetik, gogoeta kritikoaren bitartez eta eskualde, herrialde nahiz komunitate bakoitzaren oinarritzko kultur ereduen barruan garatutako elkarrizketaren bitartez eratutako balio eskala bat erabiliz.

Gaitasun honen alderdi etikoak barne hartzen du ingurunearen balioak ezagutu, ebaluatu eta afektibitatearen eta arrazoiaren bidez berregitea, pixkanaka nork bere balio sistema eratu eta gatazka nahiz erabaki bati aurre egiterakoan haren arabera jokatzeko. Horretarako, beharrezkoa da jakitea ezen jarrera pertsonalak etikoak izateko, Giza eskubideen deklarazioak biltzen dituenak bezalako printzipio edo balio unibertsalekiko errespetuan oinarritu behar direla.

Hortaz, gaitasun honetan, besteak beste, ondoko trebetasun hauek aurki ditzakegu: elkar ezagutu eta baloratzea, testuinguru desberdinetan komunikatzen jakitea, nork bere ideiak azaldu eta besteak beste, entzutea, besteen jarrera onartu eta, gurea ez bezalakoak badira ere, haien ikuspuntuak ulertzea, eta komunitatearen bizitzaren maila guztietan erabakiak hartzeko gai izatea, norberaren eta taldearen interesak batera IKT-ak hezkuntzan: familien, ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala garatzen

baloratzuz. Gainera, barne hartzen du desberdintasunen balorazioa eta kolektibo guztien eskubideen berdintasuna aitortzea, bereziki emakumeen eta gizonen artean. Halaber, akordioak lortu eta gatazkak konpontzeko elkarrizketa eta negoziazioa praktikatzea, bai esparru pertsonalean, bai sozialean.

Azkenik, gaitasun honen osagaia da herritartasun aktiboa eta integratzailea izatea, eta horretarako beharrezkoa da estatu eta gizarte demokratikoen oinarri diren balioak, haien funtsak, antolaketa eta funtzionamendua ezagutu eta ulertzea. Gaitasun honek bidea ematen digu demokrazia, askatasun, elkartasun, erantzun-kidetasun, partaidetza eta herritartasun kontzeptuei buruzko gogoeta kritikoak egiteko, arreta berezia emanez nazioarteko adierazpenetan, Espainiako Konstituzioan eta autonomia erkidegoetako legerian ezarritako eskubideei eta betebeharrei eta erakundeek horiek betetzen ote dituzten aztertzeari; halaber, balio demokratikoekin modu koherentean jokatzeko ahalbidetzen digu, eta horrek, bestalde, barne hartzen du nork bere pentsamenduen, balioen, sentimenduen eta ekintzen kontzientzia izan eta haiek kontrolatzea.

Herritartasunak elkarbizitzan aktiboki eta bete-betean parte hartzeko trebetasunak behar ditu. Halaber, beharrezkoa du elkarbizitzarako balio demokratikoei loturiko arauak ezarri, onartu eta erabiltzea, herritarren eskubideak, askatasunak, erantzukizunak eta betebeharrak betetzea eta besteen eskubideak defendatzea.

Labur esateko, gaitasun hau izateko beharrezkoa da bizi garen gizartearen errealitatea ulertu, elkarbizitzari eta gatazkei aurre egiteko balio eta praktika demokratikoetan oinarritutako zentzu etikoa erabili eta herritartasuna erabiltzea, nork bere irizpideen arabera jokatzuz, bakea eta demokrazia eratzeko laguntza emanez eta jarrera positiboa, solidarioa eta arduratsua hartuz herritarren eskubideak eta betebeharrak betetzeari begira.

3.2.6. Arte eta kultur gaitasuna

Gaitasun honek bidea ematen du kultur eta arte agerpenak ezagutu, ulertu, estimatu eta baloratzeko, hala nola aberastu eta gozatzeko iturri gisa erabili eta herrien ondarearen osagaitzat hartzeko.

Kultura oro har, eta, bereziki, artea estimatzeak berarekin dakar haren agerpenetara hurbiltzea ahalbidetzen duten trebetasunak eta jarrerak izatea, hala nola horiek ulertu

eta baloratzeko eta haiekin hunkitu eta gozatzeko pentsaeraren, pertzepzioaren eta komunikazioaren arloko trebetasunak eta sentsibilitatea eta estetikaren zentzua izatea.

Gaitasun honek barne hartzen ditu pentsaera dibergenteko eta konbergenteko trebetasunak, izan ere, beharrezkoa du ideia eta sentimendu propioak eta besteenak berriro lantzea, ulertu eta adierazteko iturriak, moduak eta bideak aurkitzea eta, bai eremu pertsonalean, bai akademikoan, helburuak lortzeko behar diren prozesuak planifikatu, ebaluatu eta egokitzea. Hortaz, adierazi eta komunikatzeaz gain, arteko eta kulturako errealitate eta produkzio desberdinak hauteman, ulertu eta haiekin aberasteko bidea ematen du gaitasun honek.

Beharrezkoak ditu kode artistikoei jarraikiz adierazteko ekimena, irudimena eta sormena, hala nola, kontuan hartuz kultur eta arte jarduerak talde-lanean egiten direla askotan, beharrezkoa da lankidetzan aritzeko trebetasunak, azkenean emaitza batzuk lortzen lagundu eta besteen ekimenak eta ekarpenak onartzearen garrantziaz ohartzeko.

Gaitasun artistikoak arte hizkuntza desberdinen tekniken, baliabideen eta konbentzioen oinarriak eta kultur ondarearen lan eta adierazpen garrantzitsuenak ezagutzeko bidea ematen du. Gainera, barne hartzen du agerpen horien eta gizartearen –agerpenak sortzen diren garaiko pentsamoldea eta ahalbide teknikoak– nahiz haiek sortu dituen pertsonaren edo taldearen arteko loturak identifikatzea. Horretarako, beharrezkoa da pentsaeren, korrante estetikoaren eta moda eta gustuen bilakaeraz, hala nola estetikak pertsonen eta gizartearen eguneroko bizitzan irudikatu, adierazi eta komunikatzeko duen garrantziaz ohartzea.

Orobat, arte baliabideen bitartez (musika, literatura, ikus-entzunezkoak eta arte eszenikoak, herri- arteak) ideiak, esperientziak edo sentimenduak adierazteak dakarren sormena estimatzeko jarrera ere hartzen du barne. Berarekin dakar adierazteko askatasuna, kultur aniztasunerako eskubidea, kulturen arteko harremanen garrantzia eta besteekin partekatutako arte esperientziak baloratzea.

Labur esateko, gaitasun hau osatzen duten trebetasunek barne hartzen dituzte artearekin eta gainerako kultur agerpenekin gozatzeko ahalbidea, hala nola nork bere arte produkzioak egiteko adierazpen artistikoaren baliabide batzuk erabiltzekoa;

berarekin dakar adierazpen kultural eta artistiko desberdinei buruzko oinarrizko ezagutza, pentsaera dibergenterako eta talde-lanerako trebetasunen aplikazioa, adierazpen artistiko eta kulturalen aniztasunarekiko jarrera irekia, errespetuzkoa eta kritikoa, nork bere gaitasun estetikoa eta kreatiboa lantzeko nahia eta asmoa eta bizitza kulturalean parte hartu eta bertako komunitatearen nahiz beste komunitateen ondare artistikoa eta kulturala zaintzen laguntzeko interesa.

3.2.7. Ikasten ikasteko gaitasuna

Ikasten ikasteko beharrezkoa da ikasten hasteko trebetasunak izatea, eta baita nork bere helburuen eta beharren arabera gero eta modu autonomoagoan eta eraginkorragoan ikasten jarraitzekoak ere.

Gaitasun honek bi alderdi nagusi ditu. Alde batetik, nork bere trebetasun intelektualen, emozionalen eta fisikoen eta haiek garatzeko estrategien kontzientzia hartzea, hala nola batek bere kasa eta bestelako pertsonen nahiz baliabideen laguntzaz zer egin dezakeen jakitea. Eta bestetik, motibazioa, autokonfiantza eta ikasteko atsegina sortzen dituen gaitasun pertsonaleko sentimendu bat izatea.

Barne hartzen du batek dakienaren eta ikasi behar duen horren kontzientzia izatea, nola ikasten den jakin eta ikasteko prozesuak modu eraginkorrean kudeatu eta kontrolatzeko bidea ezagutzea, horiek optimizatu eta helburu pertsonalak lortzera bideratzeko. Haren osagaiak dira nork bere ahalbideak eta gabeziak ezagutzea, lehenbizikoak erabili eta bigarrenak arrakasta ikuspuntu batetik gainditzeko motibazioa eta asmoa izatea, horrela ikasteko erronka berriei aurre egiteko segurtasuna handitzen baita pixkanaka.

Hori horrela, beharrezkoa da ikasteko behar diren trebetasunen (besteak beste, arretaren, kontzentrazioaren, oroimenaren, hizkuntza ulermenaren eta adierazmenaren eta motibazioaren kontzientzia izan eta haiek ahalik eta hobekien aprobetxatzeko estrategia eta teknika batzuk erabiltzea, adibidez: ikasteko teknikak, gertaeren eta haien arteko loturen behaketa eta erregistro sistematikoa egitekoak, lankidetzan eta proiektuen arabera aritzeko teknikak, arazoak konpontzekoak, jarduerak eta denbora eraginkortasunez planifikatu eta antolatzenekoak, informazioa bildu, aukeratu eta tratatzeko baliabideak eta iturriak, baliabide teknologikoak barne.

Halaber, barne hartzen du nork bere buruari galderak egin eta egoera edo arazo baten aurrean har daitezkeen erantzunak identifikatu eta erabiltzea, eta horretarako, eskura dagoen informaziotik abiatuta eta modu arrazional eta kritiko batez, erabakiak hartzeko estrategia eta metodologia desberdinak erabiltzea.

Gaitasun honen osagai dira, orobat, informazioa nork bere kabuz nahiz besteen laguntzarekin lortzeko, eta, bereziki, ezagupen propio bihurtzeko trebetasunak. Horretarako, beharrezkoa da informazio berria lehendik dauzkagun ezagupenei eta esperientziari lotu eta ezagupen eta trebetasun berriak antzeko egoeretan eta testuinguru desberdinetan aplikatzen jakitea.

Bestalde, gaitasun honek eskatzen du epe motzean, ertainean eta luzean lortzen ahal diren helburuak planteatu eta ikastearen xedeak pixkanaka eta modu errealistan handitzea.

Beharrezkoa du, halaber, ikasten irauten jakitea, hala nola ikastea bizitza pertsonala eta soziala aberasteko elementutzat hartu eta, neurri horretan, ahaleginak merezi dituela ohartzea. Berarekin dakar nork bere burua ebaluatu eta erregulatzeko trebetasuna, erantzukizun eta konpromiso pertsonalak, ahaleginak administratzen jakitea, akatsak onartzea eta besteengandik eta besteekin ikasten jakitea.

Laburki, ikasten ikasteko beharrezkoa da, gaitasun edo eraginkortasun pertsonaleko sentimendu batetik abiatuta, nork bere trebetasunez eta ezagupenez kontzientzia hartu eta haiek kudeatu eta kontrolatzea, eta haren barruan daude bai pentsaera estrategikoa, bai lankidetzan aritu, auto-ebaluatu eta lan intelektualeko baliabide eta teknika batzuk eraginkortasunez erabiltzeko trebetasuna; hori guztia ikasteko banakako nahiz taldeko esperientzia kontzienteen eta atsegingarrien bitartez gauzatzen da.

3.2.8. Autonomia eta ekimen pertsonala

Gaitasun honen osagaiak dira, alde batetik, elkarri lotutako balio eta jarrera pertsonal batzuen kontzientzia-hartze eta erabilera (adibidez, erantzukizuna, jarraikitasuna, auto-ezagutza eta autoestimazioa, sormena, autokritika, emozioen kontrola, hautatu, arriskuak kalkulatu eta arazoei aurre egiteko trebetasuna, hala nola beharrak berehala asetzeko premia atzeratu, akatsetatik ikasi eta arriskuak hartzekoa.

Beste alde batetik, barne hartzen du nork bere irizpideari jarraikiz hautatu, proiektuak sortu eta aukera eta plan pertsonalak gauzatzeko behar diren ekintzak aurrera eramateko trebetasuna, azken hori banakako nahiz taldeko proiektuen esparruan eta haien erantzukizuna hartuz, bai esparru pertsonalean eta sozialean, bai lanarenean.

Barne hartzen du ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna, alegia, helburuak ezarri eta proiektuak planifikatu eta gauzatzekoa. Hortaz, beharrezkoa du aurretiko planteamenduak berregitea edo ideia berriak landu, konponbideak bilatu eta horiek praktikan jartzea. Gainera, gaitasun honen osagaiak dira ahalbideak eta mugak aztertu, proiektu baten garapen faseak ezagutu, planifikatu, erabakiak hartu, jardun, egindakoa ebaluatu, auto-ebaluatu, ondorioak atera eta hobetzeko ahalbideak baloratzea.

Hori horrela, barne hartzen du erronken eta aukeren ikuspegi estrategikoa izatea, horrek bidea ematen baitu helburuak identifikatu eta betetzeko eta hasitako zereginen arrakasta lortzeko motibazioari eusteko, grina pertsonal, akademiko eta laboral osasuntsu batez. Halaber, ikasketen, lanaren nahiz aisialdiaren arloetan eskura dauden aukerak norberaren gaitasunei, nahiei eta proiektuei lotzeko gaitasuna.

Gainera, aldaketen eta berrikuntzen aldeko jarrera bat, planteamenduen malgutasuna eskatzen duena, behar du, hala nola aldaketa horiek aukera gisa ulertu, haietara modu kritikoan eta eraginkorrean egokitu eta abiarazten diren bizi proiektu bakoitzeko arazoei aurre egin eta konponbideak bilatzeko trebetasuna.

Autonomia eta ekimen pertsonalek maiz bestelako pertsonak ukitzen dituzten heinean, gaitasun honek harremanetan sartu eta lankidetzan aritzeko trebetasun sozialak behar ditu: besteen jarrera ulertzea, besteen ideiak baloratzea, hizketatu eta negoziatzea, besteei norberaren erabakien berri emateko asertibitatea eta lankidetzan malgutasunez aritzeko gaitasuna izatea.

Gaitasun honek beste alderdi bat du, ikuspegi sozial horri lotuago dena, proiektuen buruzagitzari loturiko trebetasunez eta jarrerez osatua, horren barruan sarturik nork bere buruarekiko konfiantza, enpatia, hobetzeko gogoia, hizketan eta lankidetzan aritzeko gaitasuna, denboraren eta egitekoen antolaketa, eskubideak baieztatu eta defendatzeko trebetasuna eta arriskuak hartzekoa.

Labur esateko, autonomia eta ekimen pertsonalek barne hartzen dute banakako nahiz taldeko proiektuak edo ekintzak sortu, abiarazi, garatu eta ebaluatzeko gaitasuna, eta hori sormenak, konfiantzak, erantzukizunak eta zentzu kritikoak lagunduta.

4. GAITASUN DIGITALA

4.1. Definizioa

Aurreko puntuetako batean, Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala Nafarroako Lehen Hezkuntzako Curriculumean nola definitzen den jarri dut, baina hori ez da gaitasun honi buruz eman den definizio bakarra.

Ikaskuntza iraunkorrari buruz 2005 urtean Europako Komisioak eginiko gomendioetan (Marco competencia digital 2012, p. 11), zortzi oinarrizko gaitasun proposatu zituen, horien artean, Gaitasun digitala zegoen eta honela definitu zuten gaitasun hau: “Informazio eta komunikazio teknologiak (IKT) lanean, aisian eta komunikazioan modu seguru eta kritikoan erabiltzea IKT arloko oinarrizko konpetentzietan datza: ordenagailuak erabiltzea informazioa eskuratu, ebaluatu, gorde, sortu, aurkeztu eta trukatzeko eta Internet bidez komunikatzea eta kolaboraziozko sareetan parte hartzea.”

Definizio hau kontuan hartzen badugu, gaur egungo herritarren beharrek aldaketa sakon bat jasaten ari direla ohartuko gara eta beraz, behar berri hauei ahalik eta egokien erantzun ahal izateko, hezkuntza sistemak aldatu egin behar dira. Izan ere, aldaketarik gabe ez dugu gazteek eta umeek informazioaren gizartean bizi ahal izateko beharko dituzten oinarrizko gaitasunak garatzea lortuko. Zentzu honetan, gaitasun digitala ez dugu trebetasun bat bezala ikusi behar, beste trebetasun batzuek lortzeko bide gisa baizik, hala nola, talde lanean haritzeko trebetasuna, giza talde bereko edo/eta desberdin bateko kideekin komunikatzeko trebetasuna, ikasten ikasteko gaitasuna, etab.

Euskadin, hezkuntzan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak txertatzen laguntzeko “Eskola 2.0” programa garatu dute. Bertan, hezkuntzan gaitasun digitala behar bezala garatu ahal izateko baliabide eta material desberdinak biltzeaz gain, “Informazioaren tratamendurako gaitasuna eta gaitasun digitala: marko teorikoa” izeneko testu bat topa dezakegu. Bertan, gaitasun digitala hiru dimentsiotan banatzen

da eta dimentsio horietako bakoitzerako, azpi-gaitasun batzuek definitzen ditu. Hauek dira dimentsio eta azpi-gaitasun horiek:

1. Taula. Gaitasun digitalaren hiru dimentsioak.

1. Dimentsioa: Trebetasun Kognologikoa

1. **Gailuen kudeaketa:** gailu teknologikoak eta beharrezkoak diren aplikazioak erabiltzea aparatuen arteko loturak ezartzeko, beren ezaugarriak konfiguratu, informazioa kudeatzeko, elkar-eragiteak eta parte hartzeak sortzen dituen testuinguru beharretara egokitzeko.

2. **Softwarearen erabilera:** sistema eragileak ematen dizkigun aukerak elkarrekintzarako erabiltzea (ordenagailuarekin eta beste gailuekin), sistema eragilea eguneratuta izatea eta norberaren beharretara moldatzea, eta testuak eta irudiak lantzeko programak eta sarera sartzeko programak erabiltzeko gai izatea, prestakuntza- eta aisialdi-beharrei erantzuteko.

3. **Ikaskuntza-ingurune digitaletan moldatzea:** ikaskuntza-ingurune birtualek eskaintzen dituzten aukerak erabiltzea; horretarako, moldatzeko ahalmena eta egoera arazotsuei laguntzarik gabe irtenbidea emateko prestutasuna eta baliabideak erakustea, eta software lokal finkoa eta sareko software dinamikoa bereiztea.

4. **Bestekin IKTen bidez komunikatzea:** komunikazio sinkronoak eta asinkronoak eskaintzen dituen aukerez baliatzea ikaskideekin interakzioan jarduteko eta klasean garatutako proiektuekin eta zereginekin lotutako galderak adituei egiteko.

5. **Informazioa antolatzea:** informazioa kudeatzeko sistemak erabiltzea datuak, erreferentziak, helbideak, aplikazioak, lanak, eta abar irizpide logikoei jarraikiz sailkatzeko eta antolatzeko; sareko biltegiatze-sistemak eta sistema lokalak erabiltzea sortutako eta erabilitako dokumentazioa babesteko.

2. Dimentsioa: Ikaskuntza-jakintza

6. **Informazioa ikerketarako erabiltzea eta tratatzea:** informazioa bilatu, egiaztatu eta fidagarria eta egokia den ebaluatzea; datuak aztertu, ebaluatu eta laburtu ondoren ikerketen emaitzak adierazten jakiteko.

7. **Komunikazioa eta lankidetzaren ezagutzak ikasi eta sortzeko:** ikaskideekin hainbat inguruetan interakzioan jardutea, lankidetzaren proiektuen bidez lankidetzaren kontzientzia garatzeko arazo konplexuei irtenbidea emateko orduan, eremu lokaletatik hasi eta globalagoetaraino.

8. **Sormena eta berrikuntza IKT baliabideen bitartez:** jakintza sortu eta lan eta

prozesu berritzaileak garatzea arazo errealak konpontzeko orduan, ikerketa-teknika aurreratuak eta fenomeno konplexuen simulazioa erabiliz.

9. **Pentsamendu kritikoa:** ikerketak eta arazoak konpontzeko proiektuak garatzea, pentsamendu kritikoaren arloko gaitasunak mobilizatuz, eta, horretarako, tresna eta baliabide digital egokiak erabiltzea.

3. Dimentsioa: Herritartasun digitala

10. **Autonomia digitala parte-hartze publikoan:** autonomia digitala izatea, informazio publikoa bilatzean, administrazioaren zerbitzuak kudeatzean eta eskatzean zein norberaren proiektuetarako laguntza sarean bilatzean.

11. **Identitate digitala eta pribatutasuna sarean:** sareko komunikazioetan eta barneko beste zenbait eremutan, Interneteko pribatutasunaren, kudeaketa desegokiak dakartzan arriskuen eta netiketa-arauak²³ errespetatzearen egokitasunaren garrantzia ulertzea, nork bere identitate digitala garatzeko.

12. **Jabetza intelektual:** lan intelektualaren garrantziaz jabetzea eta lan hori babesteko beharra aintzat hartzea, obren (hainbat euskarritan: testua, irudia, bideoa...) autoretzat esleitzen eta aitortzen dituzten lizentziak eta sinboloak ezagutzea.

4.2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kontzeptua

Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitalari buruz hitz egiten dugunean, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriak (IKTak) aipatzen ditugu behin eta berriro. Izan ere, bi kontzeptu hauek oso lotuta daude, baina argi eduki behar dugu ez direla gauza bera. Lehen aipatu dugun bezala, gaitasun digitala IKTak modu kritiko eta seguruan erabiltzeko gaitasuna da, beraz, IKTak gaitasun hori lortzeko baliabideak direla esan genezake.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, telekomunikazioen eta informatikaren esparruetan eginiko aurrerapenei esker garatu ziren. Hau dela eta, Informazioaren eta Komunikazioaren teknologien definizio desberdin asko daude eta horietako bat, Cabero-k egiten duen beste hau da:

En líneas generales podríamos decir que las nuevas tecnologías de la información y comunicación son las que giran en torno a tres medios básicos: la informática, la microelectrónica y las telecomunicaciones; pero

IKT-ak hezkuntzan: familien, ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala garatzen

giran, no sólo de forma aislada, sino lo que es más significativo de manera interactiva e interconexionadas, lo que permite conseguir nuevas realidades comunicativas. (Cabero, 1998, p. 198)

Caberok baita, bere liburuan autore desberdinek definitzen dituzten IKTen ezaugarriak biltzen ditu, honako hauek:

- *Immateriala*: Zentzu orokor batean, Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek informazioaren komunikazioa, sorrera eta prozesua egiten dutela esan dezakegu. Informazio hau immateriala da eta leku batetik bestera eraman daiteke ikusi gabe (posta elektronikoa, etab.)
- *Interaktiboa*: Hezkuntza mailan baliagarriena den ezaugarria da hau, izan ere, erabiltzen ditugun errekurso eta materialak ikasleen beharretara egokitzeko aukera paregabea eskaintzen digu.
- *Interkonexioa*: Errekurso berriak sortzen dituen bi teknologien arteko konexio teknologikoari buruz hitz egiten digu ezaugarri honek. Adibidez: posta elektronikoa, etab.
- *Berehalakotasuna*: Komunikazio sareek eta informatikarekin duten loturak, fisikoki urruti dauden bi lekuen artean informazioa partekatze eta komunikatzea ahalbidetu dute.
- *Irudi eta soinu parametro altuak*: Informazioa transmititzeko prozesuak mota guztietako informazioa biltzen du bere baitan: irudia, soinua, testua, etab. eta digitalizazio prozesuak transmisio hori erraztu du.
- *Digitalizazioa*: Mota desberdinetako informazioa (testuak, irudiak, soinuak, animazioak, etab.) euskarri bakar baten bidez transmititzen ahal izatea du helburu, izan ere, informazio mota horiek guztiak formatu bakar unibertsal batean egongo dira, formatu digitala. Kodifikazio digital hori egiteko, MODEM bezalako hardware euskarriak edota digitalizaziorako software-ak erabil daitezke.
- *Prozesuen gaineko eragin handiagoa emaitzen gainekoa baino*: Informazioaren gizarteari buruz hitz egiten dugularik, interneten bidezko informazio kopuru izugarri baten eskuragarritasuna azpimarratzen dugu behi eta berriro. Autore batzuek ordea, gehiegizko informazioak eragin negatiboak dituela diote eta

honen kalitatea zalantzan jartzen dute. IKTek ordea, norbanakoak bere ezagutza oinarri zabal eta aberats baten gainean eraikitzeko aukera eskaintzen dute eta ez hori bakarrik, norbanakoak bere ezagutza eraikitzeko informazio “masa” bat izateaz gain, beste pertsona batekin harremanetan jarri eta elkarren artean ezagutza eraikitzeko aukera eskaintzen digute.

- *Sektore guztien barneratzea (kulturalak, ekonomikoak, hezkuntza, industria, etab.):* IKTen eragina ez da norbanakoa, taldea edo gizartera mugatzen. “Informazioaren gizartea” eta “globalizazioa” kontzeptuek erakusten diguten bezala, eragina munduko biztanle guztietara zabal daiteke horrek ekartzen dituen aldaketa guztiekin.
- *Eraberritzea:* IKTak, gizarteko aspektu guztietan aldaketa eta eraberritze etengabe bat eragiten hari dira. Hala eta guztiz ere, aldaketa hauek beti ez dute lehengo teknologia eta moduak alboratzea suposatzen. Telefonoaren iritsierarekin adibidez, eskutitzak idaztea nabariki murriztu zen, baino posta elektronikoarekin, korrespondentzia berriro ere hazi egin da.
- *Automatizaziorako joera:* Egun eskuragarri dugun informazio kopurua izugarriak, hori guztia kudeatu ahal izateko gestore pertsonal eta korporatiboak agertzea eragin du. Hau da, informazioaren maneiu automatiko bat ahalbidetzen duten tresna eta aukera desberdinak agertu dira.
- *Aniztasuna:* Teknologi hauen erabilera moduak oso zabalak dira, hala, pertsonen arteko komunikazioa soiletik hasi eta informazio berri bat sortzeko informazioaren azterketa prozesura joan gaitzke.

5. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK GELAN SARTZEA

IKTek izugarrizko eragina dute hezkuntza munduan eta gaitasunak garatzeko laguntzaile paregabeak dira. Hasteko, esan daiteke IKT-ak beharrezkoak direla gaur egun mundutik mugitzeko eta eskolak erabili behar ditu bere funtzioa ikasle guztiak gaurko munduan aritzeko eta egoera desberdinetan konpetenteak izateko prestatu behar dituelako.

IKTek inplikazio handia dute prozesuan eta pertsonarengan, esan daiteke :

IKT-ak hezkuntzan: familien, ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala garatzen

- Pentsamendu kritikoa izaten eta ezagutza eraikitzen laguntzen dutela.
- Modu kolaboratzailean lan egiten laguntzen dutela eta norberaren ikaskuntza-prozesua hobetzeko baita beharrezkoak direla.
- Informazioaren kudeaketan ezinbestekoak dira, hau da, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta kritikotasunez erabiltzeko gaitasuna lortzen laguntzen dute, formatu desberdinetan eta iturri digital desberdinak erabiliz, beti testuingurua kontuan hartuz.
- Alfabetizazio teknologikoa garatzeko baliabide paregabeak dira.
- Komunikazio-lengoiak garatzeko oso onak dira.

Honekin batera, aipatu behar da autonomia pertsonala eta autokontrola garatzen asko laguntzen dutela. Izan ere, IKT bakoitzak bere ikas-prozesuaren progresioa jakiteko elementurik garrantzitsuenak dira.

IKT-ak erabiltzen direnean, ikasle-irakasle rol klasikoak aldatu egiten dira hainbat momentutan: Irakaslea bere ikasleriaren irakaskuntzaren orientatzaile bihurtzen da, bere ondoan egoten da baina bera da, ikaslea, jarduerari aurre egiten diona.

Baliabide honekin, ikasleen protagonismoa handitzea eta haien arteko erlazioak sendotzea lortzen da besteak beste. Izan ere, askotan elkar-lanean jarduten dute eta elkarrengan horretatik sortzen da jakinduria. Horretaz gain, IKTek elkarren arteko laguntza bultzatzen dute, izan ere, baten batek arazo bat konpontzeko laguntza behar badu, eta kide batekin elkar-lanean hari bada, berari eskatuko dio laguntza. Honek, elkarren arteko harremana sendotzeaz gain, ikasten ikasteko gaitasuna garatzea ahalbidetzen du.

ITEn (Instituto de Tecnologías Educativas) “Competencia Digital” txostenean (urtea), definituriko Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek hezkuntzan betetzen dituzten funtzioak biltzen ditu. Hauek dira funtzio horiek:

- *Funtzio informatzailea*: Errealitatearen informazio estrukturatu bat helarazten gaituzte.
- *Funtzio hezigarria*: Ikasleen ikaskuntza prozesua orientatzen dute modu honetan lortu nahi diren hezkuntza helburuak lortzea ahalbidetuz.

- *Motibazio funtzioa:* Ikasleen arreta erakarri eta mantentzen dute aurkezpen erakargarriak, jarduerak, errefortzuak, etab.en bidez.
- *Ebaluazio funtzioa:* Ikasleek egiten ahal dituzten akatsen berehalako zuzenketaren bidez eta behar direnean laguntza gehigarrien bidez ikasleen zailtasunen, duden, etab.en berehalako informazioa eskuratzen da.
- *Ikerketa funtzioa:* Informazioa bilatzea eta partekatzea ahalbidetzen dute, edukiak erlazionatzea, ondorioetara iristea, etab.
- *Adierazpen funtzioa:* Tresna zehatzak erabilia material desberdinak eratzeko aukera paregabea eskaintzen dute.
- *Funtzio komunikatzailea:* Ikasle eta irakasleen arteko komunikazio, tutoretza eta kolaborazioa errazten eta ahalbidetzen dute.
- *Funtzio metalinguistikoa:* Informazioari berezkoak zaizkion hizkuntzen ikaskuntza bultzatzen du.
- *Funtzio ludikoa:* Ordenagailuekin lan egiteak, ikasle askorentzako konnotazio ludikoak ditu, baina horretaz gain, programa batzuek elementu ludikoak dituzte.
- *Eraberritze funtzioa:* Era eta mota desberdin askotako jarduerak egitea ahalbidetzen dituzten baliabideak izateaz gain, gelako organizazioa aldatzea ahalbidetzen du irakasle-ikasle rola aldatuz.
- *Sormen funtzioa:* Zentzumen garapena, ekimen pertsonalaren areagotzea eta irudimena zabaltzea eragiten dute besteak beste.

5.1. Beharrezko ekipamendua

IKTak hezkuntzan behar bezala txertatu ahal izateko, eskolek ekipamendu bat eduki behar dute. Pere Marqués-ek (urtea), gaitasun digitala garatu ahal izateko eskolek eduki beharreko ekipamendua aurkezten du

- *Arbela Digital Elkarreragilea:* Internetera, bideo proiektore batera eta tablero elkarreragile batera konektatutako multimedia ordenagailu bat behar dute. Internetetik, ordenagailutik edota beste edozein gailu analogiko edo digitaletik datorren intereseko edozein informazio gelan estrategikoki kokatuta dagoen

tableroan proiektatzea da bere funtzioa. Ha dela eta, gelako talde guztiaren arteko informazio trukea ahalbidetzen du.

- *Informatika gelak:* Orokorrean sare lokalera konektatuta egoten diren 10-20 ordenagailuko gela hauek oraindik ere eskoletako elementu funtsezkoak izaten jarraitzen dute. 12 ikasle talde eta 20 ordenagailuko gela bat dituen eskola batek, talde bakoitzari 2,5 orduko ordenagailu saioa eskaini ahal die adibidez.
- *Ordenagailu dotazioa geletan:* Gaur egun, ikasleak gelan egiten diren jardueretan ordenagailuaren erabilera hobeto txertatzeko, ikasgelan ordenagailu eramangarriak sartzen hari dira. San Frantzisko ikastetxean, 3. zikloko 5. eta 6. mailakoen artean (A/G eta D eredutakoak) banatzen diren bi gurdi dituzte. Gurdi bakoitzean gelako ume guztientzako ordenagailu eramangarriak daude beraien saguekin eta saio bat bukatzean, gurdia korrante elektrikora konektatzen da ordenagailuen bateria kargatzeko.
- *Interneteko konexioa eta ordenagailuak dituzten erabilera anitzeko ikasketa gelak:* Gela hauek lan autonomorako inguru ezin hobeak dira. Gaur egungo curriculumen izaera aplikatzailea dela eta, lan autonomorako eta talde txikian lan egiteko espazio bat izatea ezinbesteko bihurtzen da. Gela hauek talde lanean haritzeko mahaiak, ordenagailuak eta interneteko konexioa izaten beharraz gain, sor daitezkeen arazo txikiak konponduko dituen monitore bat eduki behar dute baita.
- *Eskolako web-orriak eta Intranet:* Eskolako komunitate osoaren arteko komunikazioa ziurtatzen dute. Intranet ordenagailu zentral edo serbidore bati konektatutako ordenagailu sare lokal bat da eta beraz, eskolako partaideek bakarrik dute sarbidea. Honek, eskolako informazio edozein ordenagailutik eskuratu ahal izatea ahalbidetzen du derrigorrean ordenagailu zentralera joan beharrean. Eskolako web orriak berriz, eskolak sortutakoak izaten dira bere kideen arteko komunikazioa errazteko, kudeaketa eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetzeko, bere ariketak partekatzeko eta eskolako kideen arteko elkarreragina hobetzeko.

5.2. Metodologia berriak

Esan bezala, Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak hezkuntzan txertatzeak baliabide aniztasun bat eragiteaz gain, mota askotako jarduerak egitea ahalbidetzen du. Horrek ordea, metodologi berriak eratzea bultzatzen du. Jarraian, Garcia eta Gonzalez-ek gelan gehien erabiltzen diren eta hobekien txertatuta daudela esaten dituzten metodologiak aipatuko ditut:

- *Posta elektronikoa:* Hezkuntzako administrarientzat, gurasoentzat, irakasleentzat eta ikasleentzat internetek eskaintzen duen komunikatzeko oinarrizko tresna da. Posta elektronikoa erabilita, "eskolen arteko aniztasun" lan esperientzia ugari sortzen hari dira, eTwinning adibidez. Esperientzia honek, Europako edozein herrialdeetako eskolen arteko harremana ahalbidetzen du denen artean proiektu komun bat garatzeko. Espainia mailan, autonomi desberdinetako eskolen arteko elkarlana ahalbidetzen duten lan esperientziak gauzatzen hari dira.
- *SMS mezuak. Mezu motzak mugikorretara:* Ikasleekin eta baita beraien familiekin ere komunikatzeko erabiltzen hari da. Hala nola, gurasoei komunikatuak eta oharrak bidaltzeko edota beraienkin tutoretzak itzartzeko erabiltzen da modu honetan ikasleek idatzitako oharrak galtzea ekidinez.
- *Banaketa zerrendak:* Mezu bat banaketa zerrenda hauen bidez bidaltzean, zerrenda hauetan sartuta dauden pertsona guztiek jasoko dute. Zerrenda hauen forma oinarrizkoena gelako zerrenda da. Irakasleak mezuak zerrenda horretara bidaltzen ditu eta ikasle guztiek jasotzen dituzte. Zerrenda hauek, ikasle batek beste ikasle bati edo irakasleari berari dudak edo mezuak bidaltzeko aukera eskaintzen dute baita.
- *Ikaskuntza komunitateak:* Gai berdinen inguruko interesa duten lan taldeak dira. Tresna hauek apunteak, gelako materiala, etab. parteka dezakete, edo komunikazio sistema bat eduki. Zerbitzu hau dohainik eskaintzen duten atari ezagunenak hondokoak dira: Yahoo, Hotmail, Gmail eta MSN-Groups.
- *Blog-ak:* Gai desberdinen inguruko gogoeta, argudiaketa eta eztabaida ahalbidetzen duten sareko espazio irekiak dira eta beraz, hezkuntzan

txertatzeko oso egokiak izan daitezke. Partaideek elkarrekin lan egitea ahalbidetzen du era malgu batean, denbora-espazio mugarik gabe. Bisitatzailerak, blogean ageri den informazioari buruzko beraien ideiak eta iritziak idazteko askatasuna emateak, lankidetzak kolaboratzaileak garatzea ahalbidetzen du. Ordaindu egin behar diren blogak daude, baina baita dohainik direnak ere eta azken hauen artean ezagunena Blogger da, Google-rena, erabil erraza delako.

Hauetara dira blogak hezkuntzan izan ditzakeen aplikazio aukera batzuek:

- Eskolako web-orria bezala erabiltzea: komunikatzeko, eztabaidarako, gelako errekursoak ikusteko, etab.
 - Irakasle baten blog pertsonala non hezkuntzarako interesekoak diren gaiak azaltzen diren.
 - Gelako bloga: ikasleek eginak non beraien eguneroko lana biltzen den.
 - Gelan egindako lanak erakusten dituen bloga. Bertan, irakasle zein ikasleek beraien iritzia eta komentarioak uzten ahal dituzte.
 - Ikasleen gurasoentzako bloga: Intereseko berriak, ikasleen etxerako-lanak, eskolako kirol jazoerak, kulturalak, etab. biltzen dituenak.
- *Wikiak*: Estructura hipertestual baten bidez organizatzen diren web-orriak dira. Blogean agertzen den edukia bere sortzaileak/kudeatzaileak erabakitzen duen bitartean, wikiak mundu osoari zabaldua daude eta beraz edonork edita ditzake bertako edukiak edota eduki berriak sortu. Adibide ezagunena Wikipedia dugu, doakoa den eta hizkuntza guztietan dagoen entziklopedia onlinea. Wikiek hezkuntzan dituzten aplikazioen artean garrantzitsuena, ikasle eta irakasleen artean dokumentu kolaboratzaileak sortzea ahalbidetzen duela da.
 - *Eskolako web-orriak*: Hauetan ikastetxeari buruzko informazioa instituzionala eta akademikoa agertzen da. Zentro gehienek web-orriak dituzte, baina zenbait kasutan agertzen den informazio zaharkituta dago eta ikasturte askotako

desfasea topa dezakegu. Web-orri bateko informazio zaharkituta baldin badago web-orroak bere balorea galtzen du. Hau da web-orri batean agertu beharko lukeen informazioa:

- Zentroaren deskripzio orokorra: kokapena, historia, eskaintzen dituen zerbitzuak, instalazioen deskribapena, auzoaren ezaugarriak, ikasleria, organizazio estuktura (gobernu organoak, irakaskuntza koordinazioa), irakasleria, hezkuntza proiektua.
 - Ikastetxea kokatuta dagoen auzo, herri, hiri, komarkari buruzko informazio soziokulturala.
 - Ikastetxean egiten diren jardueri buruzko informazioa: eskola-egunkaria, APYMAK antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak, irakasleriak proposatutako jarduera osagarriak, ateraldiak, bisitak, etab.
 - Eskaintzen diren zerbitzuak: jantokia, garraioa, eskola ordu jarraia/zatitua, etab.
 - Doako on-line errekurtsioak: liburu digitalak, hezkuntza estekak, ...
 - Irakasleriari buruzko informazioa: apunteak, materiala, lan metodologia, ebaluazio datak, etab.
 - Gurasoentzako zerbitzu eksklusiboak: pasa-hitz bidezko sarrera. Gestioak on-line egiteko aukera, seme-alaben historiala kontsultatzea, etab.
 - Irakasleriarentzako eta Zuzendaritza taldearentzako zerbitzu eksklusiboak: pasa-hitz bidezko sarrera. Asistentzia kontrolak, notak, jardueren jarraipena, zentroaren kudeaketarekin zerikusia duten gestioak.
- *Lan kooperatiborako plataformak*: Ikastetxe batzuek, eskolako web-orriak lan kooperatiborako plataforma moduan ezarri dituzte. Modu honetan, alde batetik ikas komunitate osoari informazioa eskaintzen diote eta betetik, guraso, ikasle, irakasle eta zuzendaritza taldearentzako zerbitzu mugatuak eskaintzen dituzte.

Plataforma hauek, familiei informatzea errazten dute eta ikasleen areko lan kooperatiboak ahalbidetzen dituzte, besteak beste.

- *Komunikazio tresna sinkronoak*: Ikastetxeek beraien gelako programazioetan internetekin erlazionatutako ariketak proposatzen dituzten heinean, zeregin eta zerbitzu berriak eranstean dira. Egun, ikasleek egiten duten sarearen bi erabilera handienek, kutsu ludikoa dute: batetik chat-en erabilera eta sareko jokoen erabilera, eta bestetik, informazio pixka baten bilaketa. Berehalako mezularitza programak aprobetxatzen ahal ditugu ikasleen arteko komunikazioa bultzatzeko. Tresna hauek “hezkuntza tutoretza birtualak” ahalbidetzen dituzte baita, hala, gurasoak lanean daudelako etxean bakarrik dagoen eta duda bat duen ikasleak, irakasle-tutoreari galdetzen ahal dio bere duda eta erantzuna denbora errealean jaso. Beste erabilpen bat gurasoekin tutoretza birtualak egitea da. Izan ere, gero eta guraso gehiagok lan orduak eskolako tutoretza orduekin uztartzeko arazoak izaten dituzte, hau dela eta, Europar Batasuneko herrialde batzuetan eta EEBB-etan interneten bidezko tutoretzak egiten hasi dira, ahal bada bideokonferentzia bidez.
- *WebQuest gelan*: Iradokitako iturri desberdinak aztertuta, informazio bilatzean datza. Iturri horien gehiengoa interneten dago eta WebQuest hauen helburu nagusia, interneten topatutako informazioaren prozesamendua da eta ahal bada, talde-lanean. Ikasleak, informazioaren hartzaile izateri utzi eta bere ezagutzaren sortzaile/garntzaile izatera pasatzen da, hori bai, egindako lana ezin da informazioa bilatze soil batera murriztu edota topatutako informazioa irakurri gabe kopiatu eta itsatsi. Bernie Dodge eta Tom March-en arabera, WebQuest batek ondoko atalak ditu:
- *Altxorra aurkitzea edo “lesson plans”*: WebQuest-en antzekoa da, baina honetan, galdera zehatz bat egiten zaie ikasleei eta horren erantzuna aurkitzeko web-orriak ematen zaizkie. Batzuetan, erantzuna ez da orri batean aurkitzen eta ikasleek prozesuan zehar ikasitakoa integratu behar dute erantzun egokia topatzeko.

5.3. Abantailak eta desabantailak

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak hezkuntzan txertatzeak dituen abantailak laburtu beharko bagenitu, ondokoa hauek izango genituzke (García, González, s.f., pp.40-44):

- Komunikazioa ahalbidetzen dute: Elkarren arteko komunikaziorako baliabide ezin egokia izateaz gain, IKT-ek norberaren ingurune sozialeko beste kideekin eta baita ingurune horretatik at dauden pertsonekin ere harremanetan jartzeko eta komunikatzeko aukera eskaintzen dute. Izan ere, internetekin lotuta daudenez, pertsonen arteko hartu-emanaren denbora errealean gauzatze da, denbora-espazio mugak gaindituz.
- Lan kooperatiboak gauzatzeko aukera ematen dute: Arestian aipatutako komunikazio aukera zabal horrek, edukiak, gai bati buruzko hausnarketak eta gogoetak, informazioa, iritziak, etab. denbora errealean beste pertsona batekin partekatzeko aukera eskaintzen du. Modu honetan, pertsona desberdinak proiektu berdin batean elkar-lanean aritzean ahal dira nahiz eta pertsona horiek herri, hiri, eskualde edota herrialde desberdinetan bizi. Gainera, beste herrialde bateko pertsonekin lan kooperatibo bat egiteko aukera izateak, leku horretako ohiturak, baloreak, etab. ezagutzeko aukera eskaintzen du, hau da, beste kultura batzuek ezagutzea eta beraz, hauekiko errespetua garatzea. Labur esanda, lan kooperatiboek kultura desberdinetako pertsonak hurbiltzea ahalbidetzen dute eta beraz, pertsona horiek kultura aniztasunean hezteak.
- Motibazioa bultzatzen dute: Ikasle askorentzako, ordenagailua erabiltze hutsak kutsu ludikoa dauka nahiz eta gero baliabide hori eduki batzuei buruzko informazioa bilatzeko, sintetizatze, horren gaineko hausnarketa egiteko, ezagutza eraikitze, etab. erako erabili. Beraz, ikasle gehienek oso gustura ekiten diote jarduera desberdinak ordenagailuaren bidez egiteari eta eskolak motibazio hau aprobetxatzeko aukera eta beharra dauka ikasleengan ikasteko grina pizteko eta bultzatzeko. Horretaz gain, ikasleen motibazio maila altuak eskola porrota ekiditen du, izan ere, gaur egungo arazo larri honen arrazoi bat, ikasleen ikasteko gogo falta da.

- Lan autonomoa bultzatzen du: Lehen esan bezala, Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek kooperazioa bultzatzen dute, baina horretaz gain, ikasleek garatzea ezinbestekoa den beste gaitasun bat garatzen laguntzen dute baita: autonomia. Izan ere, autonomia gaitasun bat izatea arazoak konpontzeko, ikasten ikasteko, etab.eko gaitasunak lortzeko ezinbestekoa da. Autonomiak ekintzen inizatiba izatea suposatzen du besteak beste eta hau oso garrantzitsua da gaurko munduan.
- Ikasle-irakasleen rolen aldaketa: Eskola jada ez da irakasle orojakile batek bere ezagutzak ikasle talde bati pasatzea. IKT-ek ikaslea bere ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren protagonista bihurtzea ahalbidetzen dute, beraiek dira ze informazio bilatu eta non aukeratzten dutenak eta gero lortutako informazio hori hautatu eta prozesatzen dutenak beraien errealitatearen ideia propioa sortzeko. Horretaz gain, elkarren arteko laguntzen dira eta beraz, momentu batez beraien ikaskideen irakasle bihurtzeko aukera dute. Irakaslea berriz, jada ez da orojakilea, bere ezagutzaren mugak ezagutu eta onartzen ditu eta ikasleekiko duen funtzio nagusia, beraien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzaile izatea da. Prozesu horretan sor daitezkeen arazoak konpontzen laguntzen die ikasleei, baina ez die konponbidea ematen, arazoa konpondu ahal izateko estrategiak erakusten dizkie.
- Aniztasunean heztea: Honek, etorkizuneko gizarterako heztea esan nahi du. Izan ere, gero eta mundu globalizatu batean bizi gara, gero eta anitzagoa den mundu batean eta ikasleak aniztasun horretan hezteak, gerora munduan topatuko duten aniztasunari aurre egiten jakitea ahalbidetuko die.

Orain arte esandako guztia begiratzuz gero, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriak hezkuntzan txertatzeak abantailak besterik ez dituela pentsa dezakegu, baina ez da horrela. Izan ere, tresna berriak arazo berriak ekartzen dituzte. Hauek dira, besteak beste, IKT-ek dituzten desabantailak edo arriskuak:

- Ziber-Bullying-a: Bullying-a berdinen arteko eraso fisiko edo psikologikoa da, baina telekomunikazioen garapenarekin, Bullying mota berri bat agertu da, Ziber-Bullying-a. Hau, gailu telematikoa (internet, telefono mugikorrek, sareko jokoak, etab.) berdinen arteko eraso psikologikoa egiteko erabiltzea bezala

definitzen da eta oso arazo larria da. Izan ere, eta lehen aipatu bezala, internetek informazioa denbora errealean partekatzea ahalbidetzen du, beraz, ez dago informazio hori gelditzerik. Informazioa partekatzeko aukera hauek ikaskide baten kontrako mehatxuak, isekak edota irainak zabaltzeko erabiltzeak min psikologiko handia egin dezake irain eta iseka horiek IKT-ak erabili gabe izango luketen zabalpena baino askoz handiagoa izango dutelako. Gainera, IKT-ek mota askotako informazioa partekatzeko aukera ematen dutenez, eraso psikologiko hori egiteko materiala edozein formatutan egon daiteke: bideoak, ahots grabaketak, argazkiak, idatziak, etab.

- Irakasleek behin erabilia konpromisoa bete dutela pentsatzea: IKT-ak hezkuntzan lantzeak ez du esan nahi egun puntual batean jarduera puntual bat egiteko ordenagailua erabiltzea. Honek ez du arestian aipatutako abantailak garatzeko biderik ematen. IKT-ak, liburuak bezala, hezkuntza prozesua garatzeko eta gauzatzeko baliabide bezala hartu behar dira eta horrek bere erabiltzean jarraipen bat egotea eskatzen du.
- IKT-ak helburu bezala ulertzea: Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak hezkuntzan txertatzea ez da helburua, nahiz eta askok horrela ulertzen duten. Helburua ikasleen garapen integrala lortzea da eta IKT-ak hori lortzeko baliabide bat dira, oso baliabide aproposa ikusi dugun bezala.
- Beldurratik ez erabiltzea: Izan ere, gelan IKT-ak erabiltzeak ikasleek egiten dutenaren gaineko kontrola galtzeko beldur handia dago: bakoitza bere pantailaren aurrean dago eta mundu bereizi bat da. Ideia hau gainditu egin beharra dago, izan ere, IKT-en erabilera egoki bat eginez gero, ez dute bakartzen. Gainera, ideia oker honen atzean konfiantza eza dago, ikasleenganako eta teknologiarenganako konfiantza falta hain zuzen ere.
- IKT-ek ez dituzte arazoak konpontzen: Batzuek, IKT-ak gelako arazo guztiak konponduko balituzte bezala ikusten dituzte eta hau ez da egia, ez dira formula magiko bat. Arazoak konpondu ahal izateko baliabideak eskaintzen dituzte, baina beraien erabilera hutsak ez ditu arazoak konpontzen.

- Plangintzarik gabe aritzea: Esan bezala, gaitasun desberdinak garatzen laguntzen diguten baliabideak dira, hezkuntza metodologia desberdinak ahalbidetzen dituzten tresnak eta hezkuntzan erabiltzen diren metodologia oro bezala, plangintza bat izan behar dute.
- Euskarazko material gutxi: D modeloan askotan topatzen dugun arazo bat da hau. IKT-en kasuan, arazoa areagotu egiten da beraien erabilira hezkuntzan nahiko berria delako eta beraz, euskaratutako materiala oraindik era oso urria da.

Orain arte bakarrik planteamentu teorikoa egiten da!!! Nola dakizu zein gaitasun maila garatu duten familiek, ikasleek, irakasleek?

CONCLUSIONES

1. Competencia digital de los alumnos

Hablamos mucho sobre el modo en el que las Tecnologías de la Información y de la comunicación ayudan a que los alumnos desarrollen las distintas competencias básicas. Entre ellas, la competencia digital se ha convertido en un medio para desarrollar las otras competencias más que en un objetivo en si mismo y aunque esta idea tenga un sólido fundamento, no debemos olvidar que para que los alumnos puedan desarrollar sus competencias a través de las TIC, primero han de desarrollar una mínima competencia digital. Y es que si basamos el desarrollo de las diversas competencias en la competencia digital, resulta obvio que los alumnos han de disponer de dicha competencia, por lo que no debemos olvidar que desde la escuela también hay que trabajar en su consecución.

Según el Mapa Competencial para Alumnos y Profesores desarrollado por el programa “Eskola 2.0”, estas son las competencias TIC generales que los alumnos han de desarrollar:

FLUIDEZ TECNOLÓGICA

Comprensión y uso de la tecnología, seleccionando y utilizando distintos recursos TIC de forma efectiva y productiva, adaptándose a distintas circunstancias y problemas, y transfiriendo el conocimiento actual para el aprendizaje de nuevas tecnologías.

- F1.** Manejar recursos básicos de hardware
- F2.** Utilizar las TIC para buscar, seleccionar y analizar información
- F3.** Utilizar las TIC para procesar información textual
- F4.** Utilizar las TIC para procesar información numérica
- F5.** Utilizar las TIC para procesar información multimedial
- F6.** Utilizar las TIC para comunicarse con otras personas

APRENDIZAJE PARA TODA LA VIDA

Actitud abierta e investigativa, confiada en sus posibilidades, conciente de sus fortalezas y debilidades; que reconoce la oportunidad de aprender de cada persona y en cada situación sin importar la edad que tenga ni el contexto.

- A1.** Comunicarse y colaborar
- A2.** Desempeñarse en entornos virtuales
- A3.** Gestionar, producir y valorar la información
- A4.** Ser creativos e innovar
- A5.** Comprender, explorar y desempeñarse en el mundo real

CIUDADANÍA DIGITAL

Actitud crítica y reflexiva en la valoración de la información disponible, contrastándola cuando es necesario, y respetar las normas de conducta acordadas socialmente para regular el uso de la información y sus fuentes en los distintos soportes.

- C1.** Considerar la privacidad de la información
- C2.** Valorar la propiedad intelectual
- C3.** Respetar los diferentes estilos y formas de comunicación electrónica

Sin embargo, para que los alumnos puedan adquirir todas estas competencias primero han de trabajar algunas cuestiones básicas tales como las siguientes:

- Conocimiento de las características técnicas del ordenador y sus funciones.
- Conocimiento de los iconos, vocabulario, forma de organizar ficheros, etc.
- Conocimientos de los posibles problemas (virus) que pueden surgir al utilizar internet y medidas de prevención o solución del problema.
- Orientaciones y normas básicas para el cuidado y buen uso del material.
- Aprendizaje de mecanografía.

Por lo tanto, para que los alumnos puedan aprovechar todas las potencialidades que ofrecen las tecnologías de la información y de la comunicación, primero han de adiestrarse en la utilización básica de estas tecnologías. Es decir, tenemos que empezar a trabajar la competencia digital desde su base para que sobre ella podamos trabajar de forma segura y así desarrollar todo lo demás.

2. Competencia digital de los educadores

Estas son las competencias que según el Marco Competencial para Alumnos y Profesores han de adquirir los docentes:

Tabla 2. Mapa competencial para Docentes

GESTION Y DESARROLLO PROFESIONAL

1. Comprender la utilidad de las TIC para registrar datos de los alumnos (calificaciones, inasistencias, sanciones, historial pedagógico, etc.), calcular promedios, realizar gráficos matemáticos y estadísticos para analizar datos de los alumnos tales como (comparar rendimientos), corregir trabajos (registro de versiones y control de cambios en editores de texto).

2. Comprender la potencialidad de las TIC para producir materiales de apoyo a la gestión administrativo-docente (listados, carteles para el aula, boletines de información para los padres, normas de convivencia para el trabajo durante el año escolar).

3. Comprender la utilidad de las TIC para conectarse con pares, tomar cursos En Línea, interactuar con expertos y acceder a tópicos vinculados a su disciplina concibiendo a

esto como uno de los aspectos clave de su crecimiento profesional.

4. Ser capaz de comprender el concepto de tutorial y de utilizarlo como una ayuda para aprender cualquier recurso TIC (software, pizarra electrónica, escáner, impresora, lápiz óptico, sensor).

5. Realizar operaciones básicas de procesamiento de textos (formato, alineado, paginado, inserción de imágenes, cambio de tipografía, archivo e impresión de documentos).

6. Realizar operaciones básicas con datos numéricos (formato, suma, promedio, gráficos de base matemática).

7. Realizar operaciones básicas con contenidos multimedia (formato, insertar una imagen, sonido, texto, vídeo, bajar una imagen de un sitio web).

8. Utilizar con fluidez los servicios de Internet (web, correo electrónico, foro, etc.)

9. Manejar recursos básicos de hardware y mantener una actitud abierta hacia los nuevos dispositivos, intentando establecer similitudes y diferencias en su potencialidad y aplicabilidad en el centro escolar.

DIDÁCTICA, PEDAGOGÍA Y CURRÍCULUM

1. Diseñar, poner en práctica y evaluar experiencias de aprendizaje que permitan a los alumnos trabajar de acuerdo a sus propios intereses, su propio ritmo, sus estilos de aprendizaje y sus habilidades utilizando recursos TIC ya existentes.

2. Diseñar, poner en práctica y evaluar experiencias de aprendizaje que permitan a los alumnos ser protagonistas de su aprendizaje, diseñando sus propias experiencias, sus propios objetivos y evaluando sus propios desempeños utilizando recursos TIC.

3. Promover en sus alumnos el aprendizaje a través de recursos TIC específicos para su disciplina, tanto sean estos fuera de línea o en línea.

4. Diseñar, poner en práctica y evaluar experiencias de aprendizaje para promover en sus alumnos habilidades para el siglo XXI tales como colaboración, trabajo en equipo, pensamiento crítico, resolución de problemas, empatía y creatividad utilizando recursos TIC.

5. Identificar y evaluar recursos TIC que permitan:

- Comprender y desarrollar contenidos de la disciplina (hechos, ideas, teorías, conceptos) y establecer jerarquías y relaciones entre ellos.

- Utilizar distintas formas de comunicación con géneros y sistemas de símbolos propios de la disciplina atendiendo a la audiencia y el contexto.

- Utilizar métodos, procedimientos y formas de validación del conocimiento, propios de la disciplina.

- Profundizar acerca de los propósitos e intereses que guían la construcción del conocimiento en la disciplina.

6. Utilizar recursos TIC que permitan explorar temas del mundo real y/o resolver problemas auténticos.

7. Utilizar recursos TIC que permitan volver concreto lo abstracto a través de representaciones en 2D ó 3D.

8. Utilizar recursos TIC que permitan modelar sistemas, fenómenos, procesos o eventos.

9. Promover en sus alumnos la reflexión utilizando recursos TIC colaborativos que permitan revelar y calificar conceptos, planificar estrategias, identificar y evaluar soluciones a los problemas presentados.

10. Proveer a sus alumnos recursos TIC que permitan establecer criterios claros y explícitos respecto de los objetivos propuestos y que les permitan a su vez comprobar su grado de avance para poder refinar sus producciones.

11. Modelar el trabajo colaborativo realizado experiencias de aprendizaje que conecten con otros estudiantes, con otros docentes y con gente de la propia comunidad tanto en ambientes En Línea como presenciales.

12. Diseñar, poner en práctica y evaluar experiencias de aprendizaje que promuevan, apoyan y modelen el pensamiento creativo, la innovación y el descubrimiento.

13. Utilizar las TIC para diseñar materiales didácticos multimedia tales como atlas interactivos, demostraciones, animaciones, simulaciones, ejercitaciones.

14. Diseñar, poner en práctica y evaluar experiencias de aprendizaje que modelen y apoyen las estrategias de búsqueda y análisis de la información con especial énfasis en la información web.

CIUDADANÍA DIGITAL

1. Conocer, respetar y hacer respetar las reglamentaciones y políticas de uso aceptables referentes a la protección de datos e identidad de los individuos, en

particular de los jóvenes en edad escolar.

2. Diseñar, poner en práctica y evaluar experiencias que modelen y apoyen las políticas de uso aceptables de recursos TIC en el trabajo con sus alumnos.
3. Aplicar esquemas de licenciamiento como GPL o CreativeCommons para las producciones de las alumnos.
4. Diseñar, poner en práctica y evaluar experiencias que permitan dar a conocer los distintos riesgos a los cuales se encuentran expuestos los alumnos al compartir su información en la web.
5. Conocer, respetar y hacer respetar las reglamentaciones y políticas de uso aceptable referentes al licenciamiento de software.
6. Conocer, respetar y hacer respetar las reglamentaciones referentes a la utilización de información en la web para atribuir créditos a los autores y citar correctamente las fuentes.
7. Mantener la privacidad en el manejo de las claves personales de acceso.

Sin embargo, tal y como sucede con los alumnos, para poder desarrollar todas estas habilidades los docentes han de disponer de una formación previa. Si tenemos en cuenta , además, que la gran mayoría de los docentes de nuestras escuelas no han nacido en las sociedad de la información y por tanto desconocen gran parte de los usos y utilidades de las TIC, esta formación adquiere mayor relevancia si cabe.

La formación de los educadores ha ser continua, ya que estas tecnologías cambian muy rápido y los docentes han de estar al día de estos cambios y avances. Pero además de eso, la formación en las tecnologías de la información y de la comunicación a de empezar desde la carrera universitaria. Si tenemos en cuenta que la universidad tiene el deber de formar a los futuros profesores/profesoras de nuestras escuelas y sabiendo la gran importancia que tienen las TIC en la sociedad de hoy en día y sus usos y ventajas en educación, formar a los futuros docentes en esos usos y ventajas desde la universidad es primordial y una de las grandes asignaturas pendientes de hoy en día. Ya que la formación en las TIC impartida en el Grado de Maestro de Educación Primaria se limita a una sola asignatura de seis créditos (Komunikatzeko gaitasuna eta IKT) que se

imparte en el primer semestre del primer año de carrera. Una formación a todas luces escasa dada la importancia que tienen las TIC en nuestra sociedad y más recientemente en educación.

3. Competencia digital de las familias

La competencia digital de las familias es la gran olvidada. Existen numerosos trabajos que tratan sobre la integración de las Tic en el aula, sus usos y potencialidades, nuevas metodologías, las competencias digitales que han de desarrollar tanto alumnos como educadores, etc. Sin embargo, cuando se trata de la competencia digital de las familias, esta se limita a ofrecer pautas y/o apoyo sobre el uso seguro de las Tic por parte de los hijos/hojas por ejemplo, o a información sobre el modo en el que se trabajaran las TIC en el aula, las herramientas que utilizaran sus hijos/hijos o los nuevos modos de comunicación entre escuela y familias usando las TIC. Es decir, se da por hecho que las familias conocen las TIC y sus usos y potencialidades.

Sin embargo, no debemos olvidar que muchos de los padres y madres de nuestros alumnos no están experimentados en el uso de las tecnologías de la información y de la comunicación, por lo que precisan de una formación más detallada que la mera información. Además, sabiendo las muchas y variadas ventajas que supone la participación activa de los padres y las madres en la actividad educativa que se realiza en la escuela, proporcionarles las herramientas necesarias para facilitar esa participación adquiere una importancia vital.

Sabiendo todo esto, estas son algunas de las competencias digitales que han de adquirir las familias:

- El uso y manejo de las diferentes tecnologías de telecomunicación tales como el correo electrónico, la mensajería instantánea, etc.
- Conocimiento de las características básicas de los ordenadores y sus funciones.
- El conocimiento de los iconos, vocabulario, organización de ficheros, etc.
- Saber los riesgos que entraña la red (virus, divulgación los datos personales, CyberBullying, etc.)

ERREFERENTZIAK

24/2007 FORU DEKRETUA, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculuma ezartzen duena. NAO 64 zenbakia maiatzaren 23an.

Cabero, J. (1998) Impacto de las nuevas tecnologías de la información y la comunicación en las organizaciones educativas. En M. Lorenzo y otros (coords): *Enfoques en la organización y dirección de instituciones educativas formales y no formales* (pp. 197-206). Granada: Grupo Editorial Universitario.

CiberBullying (s.f.) Recuperado de <http://www.ciberbullying.com/cyberbullying/que-es-el-ciberbullying/>

Conectivismo. Recuperado de <http://es.wikipedia.org/wiki/Conectivismo>

Delors, J. (1996). Los cuatro pilares de la educación. *En La educación encierra un tesoro*. Madrid: Santillana, ediciones UNESCO

Eusko Jaurlaritza (2012). *Competencia en el tratamiento de la información y competencia digital. Marco teórico*. Recuperado de http://www.eskola20.euskadi.net/c/document_library/get_file?uuid=5218d316-fa1f-49b4-9eb3-e17f423298b0&groupId=408381

García, A y González, L. (s.f.) *Uso pedagógico de materiales y recursos educativos de las TIC: sus ventajas en el aula*. Recuperado de http://www.eyg-fere.com/TICC/archivos_ticc/AnayLuis.pdf

Instituto de Tecnologías Educativas (25 de marzo 2011). *Competencia digital*. Recuperado de http://www.red2001.com/docs/europa_congreso/competencia_digital_europa_marzo_2011.pdf

LEY ORGÁNICA 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo. BOE nº238. 4 de octubre de 1990.

LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. BOE nº106. Jueves 4 de mayo de 2006

Mapas competenciales para docentes y alumnos: marco teórico. Recuperado de http://www.eskola20.euskadi.net/c/document_library/get_file?uuid=53deafa7-d3f2-4206-8853-d3f7898b4d24&groupId=408381

Marqués, P (2008). *Las Competencias Digitales de los Docentes*. Recuperado de <http://peremarques.pangea.org/competenciasdigitales.htm>

Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico (OCDE) (2005). *La definición y selección de competencias clave: Resumen ejecutivo*. Recuperado de

<http://www.deseco.admin.ch/bfs/deseeco/en/index/03/02.parsys.78532.downloadList.94248.DownloadFile.tmp/2005.dsceexecutivesummary.sp.pdf>

Proyecto de innovación "INTEGRA-TIC" (2009) Colegio Público San Francisco, Pamplona

Redes 102: La manera disruptiva de aprender. Entrevista Curtys Johnson. Recuperado de <http://www.youtube.com/watch?v=oFRM0jxnC34>

Redes 87: El sistema educativo es anacrónico. Entrevista Ken Robinson. Recuperado de <http://www.youtube.com/watch?v=UJAs4wPtBEU>

Siemens, G. (2004). *Conectivismo: una teoría de aprendizaje para la era digital.* Recuperado de <http://es.scribd.com/doc/201419/Conectivismo-una-teoria-del-aprendizaje-para-la-era-digital>

Sociedad de la información. Recuperado de http://es.wikipedia.org/wiki/Sociedad_de_la_informaci%C3%B3n